

Martxoaren 29an, Zuzendaritza Batzordeak onartu zituen bi araudiek ez diote inongo mesederik egiten Haurreskolak Partzuergoak ematen duen zerbitzuari.

Hauek dira aldaketa eta gako esanguratsuenak:

- Haurreskolen ordutegia 7:45tatik 16:00ak arte mugatu dute. Luzatuko aukera izango da, soilik, baldin eta gutxienez 3 hurrek eskatzen badute.
- 2022-2023 ikasturtean izen-emate epe bakarra egongo da, 2022ko apirilaren 11tik 2022ko maiatzaren 9ra arte eta gainera, irailean hasteko aukera egongo da soilik. Ondoren, ikaspostuak libre baleude, izen-emate prozesua irekita egongo da eta eskaerak data hurrenkeraren arabera ordenatuko dira.
- Ikasturte honetan aplikatu diren kuotak berdin-berdin mantenduko dira.

Araudi honekin **STEILAS sindikatuak** ondorio kezkarri hauek ikusten ditu:

- Zerbitzuaren ordutegi orokorra mugatzeak haur galera ekarriko du, haur eskola pribatuetan eskaintza handiagoa mantentzen delako. Araudi berriak dio, 3 familiek eskatuz gero ordutegia luzatzeko aukera izango dela, baina ez du zehazten zenbat denboraz luzatu ahalko den gehienez.
- Haurreskolekako matrikulazioa, berriz ere, eskolako matrikulazio prozesu orokorretik at egingo da eta ondorioz, haur eskola pribatuek jada beraien kanpainak eginda izango dituzte Haurreskolekako egiten direnerako. Honetaz gain, beste behin ere, publizitate kanpaina indartsu bat egitea eta datorren ikasturtean Haurreskolak ere matrikulazio kanpaina orokorraren parte izatea eskatzen dugu. Haurrak irailean hasteko matrikulatu daitezkeenez soilik, haurreskola txikiak ixteko arriskua dator. Eta noski, honekin batera, irailean ere hezitzaileak desplazatuak izateko aukerak areagotzen dira, ezin baita urrian eta azaroan hasiko den haur kopurua aurreikusi.
- Doakotasunaren bidean ere ez da urratsik eman. Beraz, 2018an Lege Biltzarrak hartutako konpromisoak bete gabe mantentzen dira (doakotasunean urratsak ematea adostu baitzuten) eta pribatuekiko lehia gainditzea ezinezkoa da, diru laguntza publikoei esker kuotak merkatzeko aukera baitute.

**STEILAS sindikatuak** argi du, araudi hauek zerbitzuaren kalitatea, hezitzaileen lan baldintzak eta lanpostu kopurua baldintzatzen dituztela eta ondorio larriak izan ditzaketela; hala nola hezitzaileen lanpostuen galera eta Gasteizko Txantxangorri haurreskolaren itxiera, besteak beste. Era berean, **Zuzendaritza Batzordeak langileen ordezkariekin negoziatu gabe eta alde bakarrez hartutako erabakiak direla salatzen du STEILASek.**

